2022ko abuztuan erregistratutako langabezia

2022ko uztailean zehar LANBIDEko bulegoetan % 2,3 langabe gehiago erregistratu dira, langabe kopurua 113.758 da, aurreko hilean baino 2.564 gehiago. Abuztuko datuak negatiboak izan ohi dira, eta, hil honetako datuek joera hori jarraitu dute. Hil honetako bilakaera, osasun larrialdiaren aurreko (2018) abuztuen antzekoa izan da; azken lau urteetako langabezia igoera txikiena izan da.

Nabarmendu behar da, abuztu honetan erregistratutako langabetu-kopurua 2008tik hilabete horretan izandako txikiena dela. Ordutik hona, 2019koa izan da gehien hurbiltzen zaiona; urte horretako abuztu oso ona izan baitzen, haatik, 2.319 langabe gehiago zenbatu ziren.



	abu.-08	abu.-09	abu.-10	abu.-11	abu.-12	abu.-13	abu.-14	abu.-15	abu.-16	abu.-17	abu.-18	abu.-19	abu.-20	abu.-21	abu.-22
Saldoa	3.065	3.614	3.461	632	2.314	1.514	1.795	1.896	1.650	2.338	2.549	2.994	3.090	3.058	2564

Aurreko urteko uztailarekin alderatuz, 8.502 pertsonatan murriztu da langabezia. Errekuperazio azkar baten ondotik, urte-arteko saldoaren hobekuntza moteltzen ari da. V erako profila du krisiak; langabeziaren hazkunde azkar eta haundi baten ondotik, ezaugarri berberak dituen errekuperazioa.



- **SEXUA**

Azken hilabetean, gizonezkoen artean 1.142 pertsonatan hazi da langabezia; emakumeen artean, berriz, 1.422 pertsonatan. Urte arteko saldoari dagokionez ere, gizonezkoen artean gehiago murriztu da langabezia (-4.874) emakumezkoen arten baino (-3.628). Krisi hasieran gizonezkoak izan baziren ere kaltetuenak, errekuperazio erritmo altuagoa izan dute. 2019ko abuztuarekin alderatuz, 1.297 gizonezko gutxiago daude langabezian, emakumezkoak, berriz, 1.023 gutxiago dira. Gaur egun langabeen % 57,8 emakumeak dira.

- **ADINA**

Azken hilabete honetan langabezia adin tarte guztietan hazi da. Hazkunde handiena, 25-34 urte artekoetan erregistratu da (+% 5,34); hazkunde txikiena, aldiz, 55-64 urtekoen artean izan da (+ %,061) Urte arteko bilakaeran, 44 urtetik beherakoen artean jaitsi da gehien langabezia; 35-44 urte artekoetan izan du bilakaera onena. 54 urtetik gorakoen tartean hazi da soilik langabezia; % 1, hain zuzen ere.

- **JARDUERA EKONOMIKOA**

Abuztuan langabezia sektore guztietan hazi da. Balio erlatiboetan, industrian hazi da gehien (+% 4,37) eta lehen sektorean gutxien(+0,45). Lan-esperientziarik ez dutenen artean % 4,54 murriztu da langabezia hil honetan. Iazko egoerarekin alderatuz gero, aipatzekoa da eraikuntzan (-% 14,08), industrian (% -12,68) eta lehen sektorean (%-11,13) egon diren beherakadak. Zerbitzuetan % 4,41 murriztu da soilik. Lehenengo lan esperientzia izan ez dutenen artean, % 11,16 murriztu da azken urtean.

Datuak zehatzago aztertuta, azken hilabetean langabeziaren beherakada handiena izan duten jarduerak hauek izan dira:

53 Posta zerbitzuak ..... -38

77 Alokairuko jarduerak ..... -31

74 Beste jarduera profesional, tekniko eta zientifiko ..... -20

80 Ikerkuntza eta segurtasuneko jarduerak ..... -18

42 Ingeniaritza zibila ..... -16

Aitzitik, uztailean erregistratutako langabeziaren hazkunde handiena izan duen jarduera honakoa izan da:

78 Enpleguarekin lotutako jarduerak ..... +561

85 Hezkuntza ..... +493

84 Administrazio publikoa ..... +264

81 Eraikinetarako zerbitzuak eta lorezaintzako jarduerak ..... +238

84 Txikizkako merkataritza ..... +220

- **LANGABEZIAREN IRAUPENA**

Hilabete honetan, epe luzeko langabezia 121 pertsonatan hazi da (-% 1,1) eta epe laburrekoa, ere, hazi egin da (2.443 pertsona gehiago, +% 4,41). Urte osoari begiratuz gero, epe luzeko langabeen artean murrizketa eman da (-% 11,37); epe laburrekoen kasuan, aldiz, hazi egin da (% 2,25). Krisiaren luzatzeak epe luzeko langabezia nabarmen igotzea eragin zuen; gaur egun,

zorionez, bestelakotzen ari da egoera; 55.939 langabe iraupen luzekoak dira, langabe guztien % 49,2a.

Epe luzeko langabezia handiagoa da 44 urtetik gorakoen artean; baita emakume eta Bizkaian erroldatutakoen artean ere. Azken hilabetean, bilakaera hoberena, gizonezkoek, 44 urtetik gorakoek eta Gipuzkoan bizi direnek izan dute.

- **LANGABETUEN KOKAPEN GEOGRAFIKOA**

Abuztuko bilakaera honako hau izan da: Araban langabezia % 3,02 hazi da, uztailean baino 576 langabe gehiago, 19.646 langabe guztira; hil honetan bilakaera okerrena erregistratu duen lurraldea izan da. Gipuzkoan % 2,62 hazi da, 763 pertsona gehiago daude langabezian uztailarekin alderatuta (langabetu kopuru totala 29.873koa da). Azkenik, Bizkaian 1.225 langabe gehiago daude (% 1,94ko hazkundea), langabetu kopurua 64.239 da.

Urte arteko saldoari erreparatuz Bizkaiak erregistratu du eboluzio hoberena % 7,61eko murrizketarekin; Gipuzkoak jarraitzen dio % 6,73ko murrizketarekin eta azkenik Araban % 5,10 murriztu da.

Hiriburuak aztertuta, Bilbon azken hilean langabezia 283 pertsonatan hazi da (+% 1,29), Vitoria-Gasteizen 389 pertsonatan hazi da (+% 2,65) eta Donostian 21 pertsonatan hazi da (+% 0,30). Murrizketa izan duen eskualde bakarra, Gorbeia inguruak izan da (-11). Bestalde Ezkerraldea (+182), Deba Garaia (+171), Durangaldea (+153) eta Gobelan (+153) erregistratu dira hazkunde nabarmenenak.

Erregistratuko langabezia indize altuenak dituzten udalerriak hauek izan dira: Alonsotegi (% 17,47), Sestao (% 16,58), Oion (% 16,52), Amurrio (% 15,65) eta Balmaseda (%15,51).

- **LANGABEZIA-PRESTAZIOA**

2022ko abuztuan 39.171 langabek kobratu dute langabezia-prestazioaren bat, hau da, aurreko hilean baino 1.389 langabe gehiagok. Langabeen % 34,4k gizarte-prestazio hori jasotzeko eskubidea du. 22.628 langabek jasotzen dute ordaindutakoaren araberako prestazioa, hau da, langabeen % 19,9 dira horiek. 16.543 langabek (% 15,54), berriz, langabezia prestazioaren bat jasotzen dute. Gipuzkoa da babes tasa handiena duen lurraldea (% 37,8), Bizkaian % 33,2koa da eta Araban % 33,4koa.

Aurreko hilarekin alderatuz, langabezia estaldura-tasa 0,46 puntu hazi da; aurreko urtearekin alderatuz, ere, hazi egin da; % 0,23 hain zuzen ere.

Abuztuan, ordaindutakoaren araberako prestazioa jasotzen duten pertsonen kopurua handitzea ohikoa da; hezkuntzako langile asko langabezia egoerara joaten baita.

- **JATORRIA**

Langabeen % 15,5 (17.664 lagun), atzerritarrak dira. Aurreko hilarekin alderatuta, langabezia hazi egin da atzerritarren artean (+% 1,13); bertakoen artean, ere, hazi egin da (+% 2,53). Urte arteko erlazioan, atzerritarren arten langabezia % 4,67 murriztu da, eta bertakoen artean % 7,36.

Langabe atzerritarren % 33,6 Afrika iparraldekoak dira, % 22,4 Latinoamerikatik datoz, % 19,0 Europako Esparru Ekonomikotik, % 12,9 Saharaz hegoaldeko Afrikatik, eta % 6,3 Asiatik. Abuztuan Afrikako iparraldetik etorritako pertsonen artean hazi da gehien langabezia (+72);

• IKASKETA MAILA

Langabeen % 58,8k (66.873 lagun), oinarrizko ikasketak ditu, gehienez ere. Azken hilean, oinarrizko prestakuntza dutenen artean 648 langabetu gehiago erregistratu dira; % 0,98 hazi da langabezia azken hilean. Azken urtean % 7,01 murriztu da langabezia talde honetan.

Batxilergo-titulua duten pertsonak langabeen % 8,8 dira. Talde horretan % 2,37 hazi da langabezia azken hilean, eta azken urtean, aldiz, % 6,26 murriztu.

Lanbide-heziketa ikasi eta langabezian dauden lagunak 21.382 dira, hau da, langabeen % 18,8. Talde hau abuztuan zehar % 3,67 hazi da, eta azken urtean, aldiz, % 6,26 hazi.

Azkenik, langabeen % 13,6k (15.454 lagun), unibertsitateko ikasketak ditu. Ikasketa maila hau duten langabetuen artean % 6,37 hazi da langabezia azken hilabetean eta, azken urtean, aldiz, % 7,13 murriztu da.

• KONPARAKETA ESTATUKO DATUEKIN

Estatuan 40.428 langabe gehiago daude aurreko hilean baino (% 1,4ko gorakada). Guztira 2.924.240 langabe daude erregistratuta; EAEn, berriz, % 2,31 hazi da. EAEko mugakide diren autonomia-erkidegoetan langabeziak ondorengo bilakaera izan du: Nafarroan % 1,52 murriztu da, Errioxan % 0,62 murriztu da, Kantabrian % 1,1 hazi da eta Gaztela eta Leonen % 1,39 hazi. Katalunian % 2,8 hazi da eta Madrilen gutxiago hazi da; % 1,05 hain zuzen ere.

Lan-eskatzaile langabeak 2022eko abuztuan

	Abu-2022	Uzt-2022	Saldoa	Bil %
SEXUA:				
GIZONEZKOAK	48.060	46.918	1.142	2,43
EMAKUMEZKOAK	65.698	64.276	1.422	2,21
25 URTEZ AZPIKOAK:				
GUZTIRA	17.772	17.087	685	4,01
GIZONEZKOAK	8.323	8.143	180	2,21
EMAKUMEZKOAK	9.449	8.944	505	5,65
25-44 URTE:				
GUZTIRA	34.758	33.549	1.209	3,60
GIZONEZKOAK	13.394	12.801	593	4,63
EMAKUMEZKOAK	21.364	20.748	616	2,97
45 URTEZ GORAKOAK:				
GUZTIRA	61.228	60.558	670	1,11
GIZONEZKOAK	26.343	25.974	369	1,42
EMAKUMEZKOAK	34.885	34.584	301	0,87
SEKTOREA:				
NEKAZARITZA ETA ARRANTZA	2.211	2.201	10	0,45
INDUSTRIA	12.194	11.683	511	4,37
ERAIKUNTZA	7.053	7.019	34	0,48
ZERBITZUAK	79.201	76.569	2.632	3,44
AURREKO ENPLEGURIK GABE	13.099	13.722	-623	-4,54
LURRALDE HISTORIKOA:				
ARABA	19.646	19.070	576	3,02
BIZKAIA	64.239	63.014	1.225	1,94
GIPUZKOA	29.873	29.110	763	2,62
EAE	**113.758**	**111.194**	**2.564**	**2,31**

ESKUALDEKO BILAKAERA

2022ko abuztuan erregistratutako langabezia

	Langabetuak	Erregistratutako langabezia indizea	Aurreko hilabetea		Aurreko urtea	
			Saldoa	Bil %	Saldoa	Bil %
Bidasoa Behera	3.803	10,2%	79	2,12	-263	-6,47
Oarsoaldea	3.439	9,4%	57	1,69	-323	-8,59
Donostia-S.Seb.	7.044	7,9%	21	0,30	-775	-9,91
Donost.Mendebaldea	3.016	8,0%	72	2,45	-228	-7,03
Tolosaldea	1.895	8,0%	45	2,43	-176	-8,50
Urola Erdia	1.245	8,0%	73	6,23	-10	-0,80
Goiherri	1.666	7,7%	48	2,97	-1	-0,06
Deba Garaia	2.503	8,3%	171	7,33	-15	-0,60
Deba Behera	2.707	10,2%	123	4,76	-143	-5,02
Urola Garaia	1.119	9,1%	36	3,32	-25	-2,19
Urola Kosta	1.436	6,3%	38	2,72	-198	-12,12
GIPUZKOA	29.873	8,5%	763	2,62	-2.157	-6,73
Vitoria-Gasteiz	15.086	12,0%	389	2,65	-1.040	-6,45
Aialako Ibarra	2.206	11,8%	76	3,57	-169	-7,12
Arabar Errioxa	595	11,0%	0	0,00	-85	-12,50
Arabako lautada	725	9,5%	55	8,21	1	0,14
Gorbeia inguruak	291	6,2%	-11	-3,64	-37	-11,28
Arabako Ibarrak	404	7,9%	5	1,25	-27	-6,26
Arabako Mendialdea	98	6,3%	1	1,03	-14	-12,50
ARABA	19.646	11,8%	576	3,02	-1.056	-5,10
Gobela	4.639	9,2%	153	3,41	-384	-7,64
Txorierri	2.161	9,5%	67	3,20	-224	-9,39
Uribealdea	2.889	8,7%	70	2,48	-318	-9,92
Durangaldea	3.347	9,0%	153	4,79	-235	-6,56
Busturialdea	2.088	9,7%	67	3,32	-134	-6,03
Lea-Artibai	930	7,8%	32	3,56	-47	-4,81
Enkarterriak	1.975	13,0%	38	1,96	-159	-7,45
Arratia-Zornotza	1.443	8,3%	62	4,49	-188	-11,53
Arratia-Nerbioi	1.346	10,5%	48	3,70	-40	-2,89
Bilbo	22.179	13,2%	283	1,29	-1.601	-6,73
Ezkerraldea	16.628	13,4%	182	1,11	-1.575	-8,65
Ibaizabal	4.540	11,3%	73	1,63	-368	-7,50
BIZKAIA	64.239	11,5%	1.225	1,94	-5.289	-7,61
EAE	**113.758**	**10,6%**	**2.564**	**2,31**	**-8.502**	**-6,95**

* Bizkaia eta Arabako eskualdeen batura ez dator bat lurraldeko totalarekin, Orduña udalerria Bizkaikoa izanik Arabako Aialako Ibarra eskualdean kokatzen baita.